

Telelanaren tortura



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Telanelan naiz hurrekin, berantarekin nabil eta ezin izanen dizut txostena gaur igorri”, erran zion Ebak sail arduradunari. Halaxe erran zion, haurrena zehaztuz, berantaren arrazoi gisa eta jabetu gabe, agian, arduradunak, ez lezakeela ulert egiazko zio ala estakuru izanen ote zen hau.

Hamar astez, telelanaren kontzeptuak bidea egiteko denbora ukan zuen nasaiki, betiere salbuespenekoa egonez. Urteak joan urteak jin, gozatu ahal izan zuen Ebak, langile xumeak, noizbehinka, etxetik lan egiteko aukera, komeni zitzaiolako batzuetan eta besteetan eman-kortasuna helburu. Egia, egun bakarrean egin daiteke lana, sekulakoa, bakean, telefonoak jo gabe, inori harrerarik egin behar izan gabe, bulego-kideekin txisteak eta aholkuak trukatu behar izan gabe. Egin daiteke ere norberaren araberan, tenore egokienetan, goizekoa ez denak arratsez, insomniadunak gaua baliatuz. Egun bakarrean aste osoko heina behar.

Etxe-aldiaren hastapenetik, estatuak halaxe agindu zuen: haurrak etxean egoteko gisan, aita-amek telelana egin zezatela eta gainerakoak ere, haurrik gabekoek diogu, ahalik eta gehien. Mol-

de horretan saihestuko zen langabezia dispositiboak, kostu handikoa eta sari galera suposatzen zuena. Lana –batez ere besteei eginarazten zaiena– funtsezkoa baita, ekonomia tai gabe akuilatzea ere gisa bera.

Ebak, halaberharrez, halaxe egin zuen berak ere: ororen buru, egingarria zirudien, etxekoandre, ama, irakasle, langile, dena bat. Azken finean, bizian dena da antolaketa, ordutegi, puzzle pieza bakoitzakabitu behar duen txokoa kokatzea, besterik ez. Telebistan hala zioten lanpsikologoek eta aholku ugari eskaintzen zentzu horretan. Inutila behar zen izan ez heltzeko. Zinez, indarra eginez gero, aukera berriak ager zitezkeelakoan zegoen Eba bera ere: ibilalditxoak afaldu aitzin, baratzea paratzea, aspaldian bazterrean utzi egitasmo zenbaiti berriz lotzea. Zer zekien zetorrenaz? Deus.

Neke da imajinatzea amiltzea zein laster gertatu zitzaion.

Telelan behartua, haurrak eskolatik kanpo izanki, pozoia zen, haurren aldean irentsia, bi eskolako lanen arteetik eta aldi berean arratsaldeko hornitu beharko zitzaien denbora pasa gogoetatuz. Tortura instituzionalizatu bat izan zen, ez gehiago izatea ez ordutegi, ez lan-

toki, ez lankide, ukaitea hamar misio, konferentzia telefonikotan itotzea, gaiak azaletik tratatzea, sakontasunik gabe, e-mail parrasta igortze-jasotzea. Okerrena, ekoiztu denari norberak ere iriztea txipa-kaka dela. Ez: okerreana zen biharramunean kideek horretaz ohartaraztea.

Tortura bat zen Ebarentzat, nahiz eta urteetan aldarrikatu izan eskubide moduan, gauza super progresista zelakoan. Aukera izan zen, nagusi anitzentzat langileari ohiko errendimendua galdegiteko baldintza kaskarretan, sekulako pribilegioa egiten ziolakoan enpleguari.

Lan txarra egin zuen, petatxuak, garai normaletan sekulan onartuko ez lituzkeenak neheregandik. Eta erruduntasun puñeta hori nagusitu zitzaion gainera: ez zuela aski egiten, ez aski fite, etxean izateko xantza ukanik...

Honekin segituko du, nahi ala ez, jendartearen parte batek. Eta nehork ez du erraten: hau tranpa izan zen. Aspetean zehar eta luzerako, eremu pribatua profesional bihurtzetik harago, atentzio osoa, indarrak oro alienatu ditu lanak, sari beraren truke. Ebaren gauak eta amesgaiztoak eta geometria eta *plus-que-parfait* azaltzen eragin zorabioak horren lekuko dira. ●